

KANALAK

Bizikleta-sarea aurrera eramateko, funtsezkoa da bezeroengana iristeko erabiliko ditugun kanalak argi edukitzea. Izan ere, prozesu honek gure proiektuan eragin handia izango baldin badu ere, gainerako enpresei, hau da, gurekin kontaktatuko dutenei, aukera onuragarria eta ongi antolatua ematea beharrezkoa da. Beti ere, bi enpresen onurak eta hobekuntzak bermatuaz, inolako momentuetan gainerakoak zapaldu edo gutxietsi gabe.

Gure proiektuaren kanalari dagokionez, guk bestelako elkarte batzuekin egingo dugu lan, hau da, bizikleta-sarearen antolamenduak elkartutako kanalen bidez funtzionatuko du. Lehenik eta behin, Oarsoaldeako herritarrei eskaintza hau emateko, beharrezkoak dira oinarritzko bizikleta kopuru jakin bat edukitzea. Horretarako, “G&G vehículos 0 emisiones” enpresarekin kontaktatuko dugu eta honi esker, elkarren osagarri izango gara. Enpresa sortu berri honentzat onuragarria izango da, hauen produktuak erosiko baititugu. Gure enpresaren kasuan aldiz, gure ideia aurrera eramateko eta garatzeko aukera izango dugu.

Kanalak zeharkakoak edo zuzenak izan daitezke. Gure proiektuari dagokionez argi dago, erabiliko dugun kanala zuzena dela. Izan ere, bitartekaririk eduki gabe guk geuk modu presentzian edo on-line salduko dugu gure zerbitzua. Ez dugu tarteko enpresarik erabili behariko gure bezeroek bizikletak erabil ditzaten. Egia da beste enpresa batekin elkartuko garela baina elkarte hau ez da kanal bezala erabiliko, baliabideak eskuratzeko da baizik.

Laburbilduz, gure proiektuan erabiliko dugun kanala zuzena da, guk geuk salduko baititugu zerbitzua bezeroei, inolako bitartekaririk gabe. Baina, aipatu beharra dago, beste enpresa batekin elkarlanean aritu behariko dugula gure bizikleta sarea guztiontzat erabilgarria eta eskuragarria izan dadin.